

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACIONDESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Bi mila pertsona baino gehiagok parte hartu dute 2012an Nafarroako Gobernuak sustatutako euskarazko kultur ekintzetan

Hogei antzezlan eta hamabi bertso-saio antolatu ziren hogeita hamar bat udalerritan

Jueves, 10 de enero de 2013

Guztira 2.028 pertsonak parte hartu zuten iaz Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bitartez, antolatu zituen euskarazko kultur ekintzetan, Kultur Zikloa programaren barnean. Programa horren helburua Foru Komunitateko hainbat udalerritan euskarazko kultur ekintzak sustatzea da.

Zehazki, hogei antzezlan programatu ziren, eta 1.403 ikusle izan zituzten; bertsolaritzako hamabi saio ere antolatu ziren, eta haietan 625 ikusle bildu zen.

Programak 33.000 euroko aurrekontua izan zuen, eta kopuru horretatik 9.339 euro (% 28) Lagun Aro Aseguruak Fundazioa-Gizarte Begiradak eman zuen.

Haurrentzako nahiz helduentzako ekintzak urteko hirugarren hiruhilekoan burutu ziren hogei hamar bat udalerritan: Aibar, Arano, Barañain, Basaburua, Bera, Castejon, Zirauki, Egues, Elizondo (Baztan), Lizarra, Etxeberri (Arakil), Gaintza (Araitz), Huarte, Irurtzun, Larraintzar (Ultzama), Leitza, Lesaka, Lodosa, Martzilla, Noain, Olatzagutia, Gares, San Adrian, Doneztebe, Subitza (Galar), Tafalla, Tuteria (2) Urdaitz (Esteribar), Viana eta Atarrabia (2).